

Arriskuetatik datoz aukerak

Pasa den urteak prozesu politiko berri baten abiapuntua izan zitekeena ezagutu zuen. Baina gerokoak ikusita argi dago trabaz beteriko bidea ezin zela egokia izan aurrera begirako bideak zabaldua utzi behar zituen prozesu batentzat. Eta orduantxe gertatu zen, aireportu hartan, ezusteko latza.

Bidea oztopoz betea denean astinduren bat ematea ona ez ezik beharrezkoa ere izaten da, prozesua bere horretan usteldu ez dadin; kontua baina, zera da, zeinek astindu behar du? Aspaldian da politikarako garaia, gero eta gehiago gainera, politika astintzailea eta gizartearekin bete-betea uztartua. Ez zen lehergaien erantzunerako unea, gizartearen sektore

konprometituen erantzunerako baizik.

Balitzko abangoardiek bazter geratu behar dute, bidearen zabalga gizarteak hartu behar duenean.

Beste kontu bat da, sektoreok konpromiso komunak hartu eta gauzatzeko agertu ohi duten jarrera epela. Baina euren esku zegokeen, eta legoke, oztopoak gaingitzea. Benetan sinesten bada ahotik ahora darabiltzagun hori, hau da, euskal gizarte gehiena dagoela prozesuaren alde, eman bekio horri astintzeko aukera. Anoetatik abiatu ziren errail biren osagarri derrigorrezkoa den hirugarrenaz ari naiz, *Milakabilaka* ekimena aurpegia jarri nahian dabilen errail funtsezko hori.

Baina urte berrian gara, gertatua gertatu ondorengo urtean. Han-hemen-



INIGO AZKONA

ka badira esanak, erabakiak, ustezko mugimenduak, pasa den urteak hasieran ezagutu zituen haien modukoak. Jakiterik ez da, ordea, balitzko sukaldeetatik kanpo, ia oraingoak inflexiorako gutxienezko zantzu legez hartu behar diren ala hartu-emanik gabeko elementuak diren. Berdin gertatzen zait klima aldaketarekin euri-jasa gogorrek direnetan. Kasuala ala kausala? Edozein kasutan, argi dago aurrerakoa ezin dela atzerakoa bezala izan, hark utzitako lohietatik atera gura badugu. Oraingo konpromisoek konprometituagoak izan behar dute, alde guztientzat, bidea zabalduko bada behingoz. Esan eta egin, hitza bete.

Hortaz, zenbat eta konprometituago hainbat eta aukera gehiago zabaldu behar dira, helburuak baztertu gabe helbideak zehaztuz.

Independentsia eta Sozialismoa dira ezker abertzalearen betidaniko helburu estrategikoak. Bigarrenari ez bezala lehenengoari ez zaio edukietan gizentzeko aukera handirik eman, Lurraldetasuna eta puntu. Horrexegatik dituzte gogoko ezker abertzaleak berrikitan aurkeztutako autonomia proposamenak, iparrerako eta hegorako. Anoetan esana zen, gaurko errealitatetik abiatu behar dugula, jakina!, biharko errealitatea bestelakoa egin dezagun. Autonomia proposamenok gaurkoa dute abiapuntua, eta biharko eszenatoki diferente baterako aukera zabaltzen dute, proiektu guztiontzako aukera bera, gaurko komu-

nitate desberdinen erabakitzeko ahalmena onartuz. Demokrazia hutsa.

Trantsizioaren beharra aipatu da asteotan, inoiz baino gehiago, seguruenik, eta bai, bada politikarako garaia, baina trantsizio-bideak zabaldu eta ibiltzeko garaia ere bada oraingoa. Akabo zuri-beltzeko politika zaharra, horrenak egin du. Proposamenetan arriskatzeko garaia ere bada, Irlandan legez, arriskatzek astindua dakar eta astinduak aukerak. Sutan jartzean probatzen da nolakoa den eltzea. Bakoitzaren eltzea, guztion sutan. Hemengo eragile guztiek ez dute arriskatzeko gogoia agertu, baina agertu beharko dute, arriskatzen dutenek behartuta. ■



« Gogoko dituzte ezker abertzaleak

berrikitan aurkeztutako autonomia

proposamenak, iparrerako eta

hegorako. Anoetan esana zen, gaurko

errealitatetik abiatu behar dugula,

jakina!, biharko errealitatea

bestelakoa egin dezagun